

1931_{ko}

Jai egitaraua



Lekeitioko 1931ko jai egitaraua. LUA

Erri-jayen Iragakari bakarra
Lekeitio, Uri jator eta zintzo onetako Udal agurgarriak

ANDOLIN DEUNA'REN

omenez eralduta

1.931' garen Irälaren 1, 2, 3, 4, 5 eta 6'garenian

LEKEITIO

*Reges debellarit
horrenda cete subjecit
terra marique potens
Lequeitio*

*Lekeitio itxasoz ta
leoréz altsuak eregeak
azpiratu bale bildur-
gariak menperatu ditu*

IZPAR LABUR BILKETA

Lekeitio bere Edestiko barri ospatsubak bere idaztitegi ederretan gordeta ditu. Igaziriko aldijai begirakunea egin leitteke jakinge gelditzeko bilddur barik. Erri au zintzua ixan dalako bere jazokun-kerispiak ezittuz galdu eta euron bittartez ainbat eundiko bere egillada-aurrerapenak dagerkus.

Izpar-bilketa labur eta arin onegaz bere edesti-kiñutxu batzuk baño ezin geinkez batu; osuak-eta ez tiraz ixango, bai ostera geurre errijaren ixakerea goralduteko, nastu baxen labur egiñak.

Cavanilles,ek (sic) diño Lekeitio itzari ezarri dautsezen ikuspenak artezak ez tirala, ba ez tala ez Leku-ittua ta ezta Lecayos'tik datorren ixena be (Lecayos ixena ei-euken arerijuari aurre-emoteko ziran aintxiñako Bizkai-itxasertz-jagoliak). 1801'go urrila-28 gn. Arranegijan lur-tzulo batzuk itxas-onduan egittian aurkitu ziran gure I eta II gixaldijetako 400 diru-erromatarrak iragarten dabe Lekeitio'ren ixatia noiztigiñokua dan. Arana-Goiri'k diño Lekeitio'ren ikurpena onelan dala: Lea-kaiti-o (Lea ibayaren iztabua).

Bizkai'ko Andera, Dña. Maria Diaz de Haro, andra ona egiz deittuba, ixan zan Lekeitio'ri Villa y fuero ixenak ezarri eutsozana, Paredes de Nava'n egiñiko 1325' karren urteko Privilegio birtartez. 1324'gn. XI Albontsa'k egin zittuan Privilegio bi 1325'gn. emoniko eskubidiak bayeztuaz; azkenengo bayezpena II Karla'rena da, 1686'ko epalla-26'gn.

Lekeitio'k aintxiñan biztanle asko zittuan, baña 1442'gn. urtian 300 etxe erre zittuan suba bide zala errija gitxijagotu zan. Aurrerantzian su ain ikaragarriak ainbeste ezpiar egin ezitteko 1490'gnan. orma-esi lodi eta goi-bandija eregi zan eta eskarrak

orrexeri, 1535'gn. urtian Igualdegi'n asi ta Beaskokalea, Gamarra ziar elexa ondoko etxiak erre eta Kampatorrako ormak baltzitu zittuan suba Arranegi aldera etzan eldu. Onelako ezpiar galgarriak, gure urijak asko ixan ditu: 1525 eta 1.526'gn. urtietan gaxo zakar batek ondatu eban eta 1547'gnan. ostera be. 1578'gn. urtian gaxua ixan zan barriro ta gaxo orregaz egozanak Nikola deunaren ugartera eruan biarra ixan zan eta bertan, iñogaz artu-emonik barik egon ziran, gero, gaxua juan zanian jantzijak erre ta erriko axe loyak erretura usaindunakin lixungetu arte.

Erriko idaztjetan idazkai au dager: *“Likona'tar Domeka, tamboriña'ri, sortzi errial ordaindu neutsozan, gaxo-aldijan gaxuak euren miñak gitxijago nabaitziarren, beronek soñuagaz egin zittuan mese-diakaittik”*.

Orrenbeste okerreka errija len baño iru bidar txikiñago egin zan; barrittuten ekin eutsen eta 1796'garren urtian 325 etxe ziran. Gaur etxiak eta biztokijak 615 inguru dira ta 1.173 sendi eurotan bixi diranak. Etxe batzuk euren aurre-ormetan ikurdijak daukoek eta aintziñako guda-etxe antza.

Seme ospatsu eta gixon argijak ixan dittu. Lekeitiar sendi dedutsu batzuben barriak aintziñako urtietatik ezagututen dira; euren artian Likona'tarrak eta Yarza'tarrak ixentauko doguz. Lenengo sendi orren barri, kondairak zeozer ba'diñausku: 1903'gn. (sic) urtian Privilegio bat San Millán de la Cogolla'n eta jator-etxia Arranegijan dago, ta Likona-Torrea be, ortxe ixan zan. Gero Likona Ondarroa'ra juan zan, Loyola'ko Iñaki deunaren erenaittita ixanik. Adán de Yarza sendirik zarrenetikua da ta almen aundiduna ixan be bai. Zubieta jauregi-etxea eurok egiña da.

Garai guztijetako lekeitiar aipagarrijen ixentza dizditsuba, luzietan be luzia da: Arrieta, Errenderia, Otxoa Urkitza, Artietar Iñigo buruzagija, Colón'egaz America'ra juan zan Txatxu kontramaxua, eta abar. Baitta Agirre Solarte jauna be, baño besterik ezian, gomuta biarran gagoz Uribarren'dar Joseba Xabier, bere emazte Agirrebengoat'ar Josune eta Abaroa'tar Paskal jaun eskuzabalak. Lekeitio'ko erriak jzenbat sor ete dautsoz bere seme ongilliak ziran Uribarren eta Abaroa'ri! Oroitu daiguzan. Erruki-etxiak gaxo eta biartsubentzat; umientzat ikastolak; neskati-llatxuben-ikastolak Erruki-lekaimiak arteztuta, gosia ta ezereza ixaten ziranian asmetan zittuen lanak, molla barrija egin, jauregiren bat, urekartia, elexia barriztau, eta abar, lan orren bittartez ogi-jaubetuteko egun ain illunetan. Uribarren eta Abaroa itzalez aittatu oi-dira beti gure errijon, ori baño geyago be, ondo meresi dabe-ta.

Txadon nagusija 730'gn. urtian egin zan; done-opalkundia 1289'gnan. ixan zan eta 1488'garrendik 1512'gna bittartian zabaldu ta barriztau zan. Aldara nagusi eder aldintsuba, gótico erakua, 1502'gn. urtekua edo ei-da. Etxe ederrak be ba'dira, bai zarrak eta bai barriak ¡Lekeitio ba, jaunen errija ixan ei da ta!...

Lekeitiar geyenen arazua arrantzuba ixan da. San Pedro Cofradija 1381'gn. urtian irasi zan eta urte orretantxe erabagi zan atzemaniko baloien mingañakaz iru zati egittia: zati bi ixango ziran kaya atonduteko eta irugarrena, elexiaren biarrixanetarako. Mingain orrek saldubak ixaten ziran eta ebagillarijari errial bat ordainduten yakon. Arrantzaliak siñismen bixikuak beti ixan dira: ixontzijak itxasuan zirala, ekaitz izugarriak sortuten ziran, ikastoletako umiak Gurutza deuna eta ikurrin orlegija aurretik zittuela juaten ziran otoizka ibildeunean lez Tala'ra eta euren bijotzak samíñez baña itxaropenez Goirantz jasorik eskatzen eutsen Jaun-Goikuari arren, euren gurasuak biurto egixala umezurtz ezebela ixan gura-ta. Cofradijak egittada eder orrek sariztuten zittuan, Garilla'ren 25'knez. ume baktotxari librako ogiya eta gaztai laurena emonik. Geure “Kaxarrankia” 1482'gn. urtetik onantza jzenbat bidar dantzatuba ixan ete da! eta oindiño de, Kepa deunaren egunez urtero, pozik ikusija ixaten da.

1735'gn. urtian egiñiko “Descripción de la Villa de Lekeitio” ixena daukon idaztijan irakurten dogu: “Gipuzkoa ta Bizkai'ko itxasertzean Donostia guturija ixan ezik eta baitta ligorrez be Bilbao ta Durango ixan ezik tokirik onena eta gixon erriketarijenak dittuana da... Lekeitio'k eta bere biztanliak berarizko anaaittasuna daukoe Donostia'gaz eta onek Lekeitio'ri damotsoz eskatuten dautsozan gauzak; Lekeitio'k ostera biar ixanetan lagunduten dautso; arako 1719'gnan. lekeitiar txalupak bakarrik guda-ixontzi artetik Donostia'ratu ziranian lez...”.

Lekeitio'ra zalpurdijan juateko 1857'gnan. bide bat baño eze-guala ikusirik eta berau Gizaburuaga, Aulestia ta Munitibar'tik ziar Durango'ra eta Zornotza'tik Bilbao'ra Cavanillese'ek esan eban: “Lekeitio ondo eskutauta eta mundutik aldenduta dagol!” Udean zazpi jesarlekudun ixontzi apañak, nagi-antzian, bederatzitzi ordu Bilbao'tik Lekeitio'ra egitten zittuan. Gipuzkoa'ra juateko lenengo Elgoibar'era-emetik 11 leguara juan biar ixaten zan eta erri orretan egozan bidiak Markiña, Bergara, Tolosa, Deba, Azpeitia eta Donostia'rako. ¡Lekeitio'k biderik be ez eukon! Baña orain bitxabal ederrak dittu eta bitxabal orrek ziar notiñak eta gauzak ugari dabiltz, alde guztijetako gixonakaz artu-emonak geitturik.

Ixadijak egin eban ikuspegi ain ederra ta Lekeitio'k kutxatilla orretako bitxija ixaten jakin dau. Margo polittak, itxas-baiz zar-senduak, itxaso ta ortze urdiñak, olatu-urrumarak, ondartzetako alaittasunak, mendi-axe gentzatsubak, e. a., nabaittu eta ikusten dira. Ixadijak egin dittuzan edertasunak, ondo txautubak ixan dira. Lorategi ederdun jauregijak, eguraztoki bikañak, jolaslekubak, bixitza nasai-gentzatsuba, garbittasun-aurrerapenak, oste alai ta erritar-zintzua, eta abar, erri atsegintsu onek dittu eta oindiño geruagorako Udalak dittuan asmuak betetian asko be leku egoki eta berarizkuagua ixango da.



Andolin deuna, erri-zaindarijaren
omenezko jayak Lekeitio'n.-1931'
gn. urtia.-Iralla lenengotik 6-gño.

IRAGARKIJA

Iralla'ren 1-gua, astartia

Arratsaldeko iruretan, Udal batuba juango da Ertxadona nagosira, an, oi-dan-lez, ixango diran Vispera eta Maitine aunditsubetara. *Arratsaldeko 5-tan*, "Erraldoyak eta Buruandijak" Txistulari ospatsubak lagun dituela ibilliko dira uriko txaidiak-ziar.

Aremaittekuetan, juale eta suziri otsak iragarriko dautse erriko biztanliai jayak emen dirala.

Ondoren, aintxiñako ekandubari jarraturik, erriko Erespatz entzutesubak joko dau Kale-jira alaya, eta gero Lagi-Zarren zelayan ixango da dantzaketa pozgarrija gabeko amaikak arte aittaturiko Erespatz eta Txistularijak jota¹.

Iralla'ren 2-gn, egubaztena

Goxeko 7-tatik 8-tara, Erespatzak eta Txistularijak joko dittue goxe eresi pozgarrijak.

Amarrak lauren gitxijaguetan, Udal dedutsuba Txistu eta Turularijakaz juango da Eleiz nagosira.

Amarretan, Gotzain Jaupa nagosija Valencia'ko gotzain-orde dan Lauzirika'tar Pantzeska Xabier jaun argi-agurgarrijak eginnda. Txadon-abetesbatzak abestuba ixango da Goikoetxea aundijaren jaupa ederra² Txonitza Onaindia'tar Alberta, Valladolid'ko kalonje iztun agurgarriak azalduko dau.

Mesa ostian, bere urtietan lez, Andolin zainddari deunaren irudijagaz ixango da ibildeuna.

Jarrayan, ainbat errittan ederretsi dittuen Lekeitio'ko Euzko-Batzokiko ezpatadantzari txikijak, euren irakasle Sesma'tar Joseba buru ixanik, egingo dabe.

Ezpatadantza ekiñaldi ikusgarrija

Arratsaldeko 4-tan, eskuzko pelota-joko aundija jokaturik Gernika'ko pelotatikian jarduten daben pelotari trebiak

ETXABE IV ETA TXAPASTAK

RUBIO ETA URCELARI

Bigarren pelota-jokua egongo da

(Eskuko irgarkijetan irakurri zertzelada geyako)

Sei ta erdijetatik 8-tara, Lagi-Zarren erriko Erezpatzak joko dittu dantzaketa polittak.

Gabeko sortziretatik 12-tara,

GABEZKO DANTZALDI

andijak Ondarroa'ko uri-erespatzak, Lekeitio'kuak, Txistularijak eta klariñete-atabalak jota³.

Iralla'ren 3-gn egubena

Goxeko 8-tan emengo, Erespatzak Kale-jira entzungarriak joko dittu.

Bederatzijetan, Erraldoyak eta Buruandijak txistularijak lagun dituela ibiliko dira kalerik-kale.

Bederatzi ta erdijetan

Pedar-ariñeketa, galartzu-atzemanketea⁴.

"Carrera de globos cautivos" deritxon ikuskixun barrija⁵.

Amabijetan, Sorkalde nasan ARIÑEKETALARIJAK⁶, arte izan leittekez 12 urtetik gorako mutikuak, era onetara aldratubak. 12 urtetik 14'rañokuak egingo dittue ostera bi mollar ziar, puntan ixontzijak lotzeko daguan burdin-taketari bira egiñik; 14 urtetik 16'rañokuak egin biar dittue iru oster; eta 16'tik gorakuak, bost. Sarijak aldrak aittatu diran eran bertan, ona: 5 eta 10 laurleko, 7,50 eta 12; ta 12,50 eta 25 laurleko.

Arratsaldeko 4-tan, Pelota joko ederra, eskuz,

ETXABE III TA MONDRAGONES'EN

aurka

IRURETA II TA ARTAZO

Sei ta erdijetan asi ta 12 arte dantzaketa ugarijak Lagi-Zarren zelayan Ondarroako Erespatzak, Lekeitiokuak eta bertoko Txistularijak erestuta.

Iralla'ren 4-gn. barikuba

Goxeko 8-tan, txistularijak eta erriko Erespatzak joko dittue goxe eresi alayak.

Bederatzi ta erdijetan, "COPA LEKEITIO" deritxon txirringuts-ariñeketa. Baimenbako eta emetik 15 aneurkin⁷ barruban diran txirringularijak arte ixango dira sollik. Ariñeketa bidiak: Igualdegi zelai (Eskolape)'tik urten eta Ispaster'era, atzera Lekeitio'ra gero Gizaburuaga'ra eta Eskolapian amaitu; sarija ixanik lenen-

3 Gaztelaniazko zatian: "A la 8 y media, recepción de la acreditada Banda Municipal de Ondárroa, que alternando con un trio de clarinetes, amenizará hasta las doce de la noche..."

4 Carrera de Samaritanas eta Carrera de cintas.

5 Amarre escalonado de pequeños globos deituko da gaztelaniazko zatian: "Este divertido festejo consiste en una rápida sujeción de globos, separándolos por distancias de un metro, a lo largo de una cuerda de 70 metros de longitud, siendo preciso regresar al punto de partida tantas veces cuantos globos se colocan".

6 Cross-country deituko diote gaztelaniazko zatian, baina moila baino ez dute zapaldu behar.

7 Kilometro.

1 Gaztelaniazko zatiak xehetasun gehiago: "Seguidamente, dicha Banda, que en su reciente reorganización ha sido dotada de magnífico instrumental de la acreditada marca COUENON "MONOPOLE", se situará en el kiosco de la Plaza de los Fueros y amenizará, alternando con la Banda de Txistularis, que también ha sido notablemente mejorado..."

2 Gaztelaniazko zatian: "Se cantará la grandiosa Misa del Maestro Goicoechea, que interpretarán los coros de la Parroquia reforzados por valiosos elementos de la colonia veraniega..."

guarentzako Copa Lekeitio ta 50 laurleko; ta beste urrenguentzat 25, 10, 10 eta 5 laurleko.

Amarretan, Zeanuri'ko Albokari ta dantzari bikañen etorrerea. Udalagaz batian juango dira 10 ½'tan ixango dan egikixunera eta bere eresi-dantza jatorrak jo eta dantzatuko dittuez egun orretan. 10½-tan, Udal jaun agurgarriak, Erespatza ta Txistulariak lagun dittuela Extramuros deritxon bitxabalera juango dira eta emen Udalburu jaunak agertuko dau bide orreri "Arana-Goiri" tar' Sabin'en uribidia" ixena ezarriko dautson arridaskuna. Igez ain ikusgarrija ixan zan "Aintxiña-erako eskontzea" ikusija ixango da egittada orretan.

12-tan, Lagi-Zarren zelayan aurrekulari eta dantzalari batzaldija, bikoitxentzat, 30, 20 ta 15 laurleko ixango dira aurrekularijenzako sarijak, eta 15, 10, 7,50 ta 5 laurleko azkenenguentzat (dantzariarijak).

Arratsaldeko 3 ta erdijetan, pelota-joko ikusgarrija, ixanik alde batetik

Ubilla I ta Kortabitarte

eta bestetik

Egia ta Aranburu

Lau ta erdijetan, BATEL-ESTROPADAK, batel bakotxean juan biar dabe iru araulari eta lema-zaña.

Jarrayan, Potin arraunketa tematsu eta politta amabi urtetik ama-bosterañoko gaztetxubak; potin bakotxean lagun bi. Sarijak. batelenak 25, 15 eta 10 laurleko eta potiñetakuentzat 15, 10 eta 5 laurleko.

Bostetan, kayan

Antzarrak

eta azkenez, ekandubari jarraiturik

TANTA KOIPETSUBA

(Masta puntakua).

Zazpiretatik 12-tara

GABEZKO ERROMERI ANDIJA

soñulariak ixanik Ondarroa'ko erespatza, emengo Txistulariak eta atabal-soñuak.

Iralla'ren 5-kn. Iarunbatea

Goxeko 8-tan, Erespatzak eta Txistulariak Goxe-eresi eta biribilketak joko dittue. Erraldoyak eta Buruandijak aurtengoz azkenez ibilliko dira txaide ziar.

Bederatzijetatik aurrerantza, Atea'n Abere-batzaldija, erija, ikusketabatzaldija ta lubeki-azokea. (Egittada onen arauak eta ixango diran sarijak iragarki berarizkuen bittartez garayan adirazoko dira). Batzaldi ori ixango dan bittartian uriko Erespatzak ereski batzuk baertan joko dittu.

Amaiketan, Pelotatokijan idi-inddarketea sari asitxubakaz.

12½-tan, Egurastokijan Ereskixun bikaña Txistulariak jota.

Arratsaldeko 3½-tan Pelotatokijan Idi-inddarketak eta arri-jasotzalliak.

6½-tatik gabeko 11½-arte Enparantzan Dantzaketa alayak bertoko Erespatzak eta Txistulariak erestuta.

Iralla'ren 6-gn. igandia

Goxeko 8-tan, Erespatz eta Txistulariak, goxe-eresi pozgarriak joko dittue.

Amarretan, Ertxadonan, Jaupa nagosija. Udal agurgarrija Turulari eta Txistulariak lagun dittuala juango da jaupa orretara.

12-tan, Egurastokijan entzungarriko ereskixuna Erespatzak jota. *Arratsaldeko lauretan*, Pelota jokua, eskuz Gorri ta Urzelai eta Etxabe IV eta Artazo.

Sortziretatik gabeko 11-tara, jayen atzenengo

GABEZKO DANTZAKETEA

Lekeitio'ko Erespatz bijak eta klariñete-atabalak jota.

OARRAK

Torrillako artezkaritzeak leku orretan ixango diran egikixunen barri iragarki berezijen bittartez iragarriko dau. Bitxitokijak, edari-ozkirri salokijak, jolastuteko tramankulubak, eta abar, egongo dira.

JOLAS-EGIKIXUNEN SARIJAK

Pedar-ariñeketa, 5 laurleko, 4, 3, 2 eta 1.

"Carrera de globos", 15, 10, 5 eta 2

Ariñeketalarjak, 12 urtetik 14-giñokuai 10 laurleko ta 5; 14 urtetik 16-giñokuai, 12 eta 7,50 laurleko eta 16'tik gorakuai 25 eta 12,50 laurleko.

Txirringuts-ariñeketa, 50, 25, 10, 10 eta 5 laurleko. Irabastzaliari "Copa Lekeitio" be, emongo yako.

Aurrekulari ta jantzalari batzaldija, 30, 20 ta 15 laurleko leneguentzat eta 15, 10, 7,50 ta 5 laurleko jantzalarijenzat.

Batel-estropadak, 25, 15 eta 10 laurleko.

Potin-arraunketa, 15 laurleko, 10 eta 5.

Masta puntakua, 25 laurleko.



Zertzelada onen barri jakin nai daunak, Udal-idazkaritzan ittaundu begi. Egittada orretan arte ixateko biar dan aurrerapenez jakinerazo biar da.

Batzordiak, iragarki onetako egikixunak aldatuteko eskubidia dau.

Lekeitio'n, 1931ko. dagonila-13'gn.

BATZORDIA







Hemen ikusten dituzuen argazki gehienak *Arribas* etxearen postalak dira, 1905ean sortu eta 1992an zarratu zen Zaragozako enpresarenak. Manuel Arribasek sortu zuen seme Marianok -eta iloba Jose Luisek- handituko zuten negozioa. Jakina, 1931ko jai-programan agertu zirenez, Errepublikako sasoikoak edo apur bat lehenagokoak dira. Aurreko aldean erabiltzen duten letra zuriak berezi bihurtzen ditu.

1931ko egitarauko argazkiak



1931ko Sanantolinetako jai-egitaraua da euskaraz idatzi zen lehena. Hori gutxi balitz, zainduena eta argazki ederrez dotoretua gainera. Publizitateari esker inoiz baino diru gehiago izan zuten eta emaitza agerikoa da. Baliteke, argazkiak, batzuk behintzat, Jazinto Garamendirenak izatea, haren argazkien artean aurkitu baitugu baten bat, kasu baterako talako denboralearena. Arazoa da, denboralearen argazki hori, hain zuzen ere, Cenigaren albumean ere ikusi dugula. A zelako txokotea!



Lekeitioko Udal Artxiboa (LUA)

nteros a
 isión y
 cada uno
 c/u.
 gatas
 pos.



PROCESION DEL
 SANTO PATRON DE
 LA VILLA SAN AN-
 TOLIN. Tomó parte
 el Doctor Don Fran-
 cisco Javier de
 Laucirica, despues
 de celebrar una
 Solemnisima Misa
 de Pontifical. Se-
 gun Libro de Actas
 6 acuerdos del ~~xx~~
 Ayuntamiento en
 sus sesiones 17 de
 Agosto de 1.931.

Aintxina-erako
 eskontzea (Boda
 de antigua usen-
 sa), celebrada con
 motivo de las fi-
 estas patronifi-
 cas.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
 XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
 XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
 XXXXXXXXXXXXXXX
 XXXXXXXX
 XXXXX
 XXX
 X



1931ko Sanantolinak

1931ko San Antolin
 eguneko prozesioa eta
 euskal ezkontza. LUA